OIARTZUNGO UDALA

Oiartzungo lehenengo sektoreko proiektuak sustatzeko dirulaguntzak (2026. urteko deialdia)

1. ARTIKULUA Xedea eta helburuak.

Oinarri hauen xedea da Oiartzungo udalerrian garatzen diren lehenengo sektoreko proiektuak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak zehaztea.

Dirulaguntza hauen helburu nagusia lehenengo sektorea sustatu eta indartzea da. Helburu honek, landa ingurunearen garapenerako politika nagusiekin egiten du bat, hala nola:

- Nekazaritza-ustiategien jarraipena ziurtatzea, landa-ingurunearen garapen ekonomikorako oinarrizko bitarteko baitira, bai eta familia-nekazaritzatik ahalik eta jende gehien bizitzeko bitarteko ere. 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.
- Euskadiko nekazaritzaren eta landa ingurune osoaren funtzio aniztasuna eta iraunkortasuna bermatu eta sustatzea ekonomia, gizarte, ingurugiro eta kultur alderdietan, nola eta Euskadiko nekazaritzaren egoera eta ezaugarrietara egokitutako eredua diseinatuz, landa eremuak despopulatu eta lagatzeko prozesuak eragotziz, eta landa eta hiri inguruen arteko elkarreragina diskriminazio positiboaren bitartez bultzatuz. 10/1998 Legea, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapenerakoa.

2. ARTIKULUA Ustiapen motak

Dirulaguntza deialdi honen irizpideetarako, bi ustiapen mota bereiziko dira

- 1. motako ustiapenak: NLU 1 edo handiagoa dutenak edo:
    - 20 behi edo gehiago edo/eta
    - 100 ardi edo gehiago edo/eta
    - 30 txerri edo gehiago edo/eta
    - 20 zaldi edo gehiago edo/eta
    - 500 oilo/oilasko edo gehiago edo/eta
    - 100 edo gehiago ahate.
    - Baratzegintzan 1 ha baino gehiago lantzen dutenak
    - Frutagintzan 1 ha baino gehiago lantzen dutenak
- 2. motako ustiapenak: Gainontzeko guztiak.

3. ARTIKULUA Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Orokorrean, onuradunek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Ustiategia Oiartzunen izatea.
b) Ustiategia Gipuzkoako lurralde Historikoko Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan inskribatuta egotea.
c) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko eta Oiartzun Udalarekin betebeharrak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere.
d) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren inhabilitazio egoeretako bakar batean ere ez egotea.
e) 1. motako ustiapenen kasuan, titularra Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimenean alta emanda egotea.
f) Ustiategiak landare sanitate, abere identifikazio eta sanitate, abere ongizate eta ingurumenari dagokion indarrean dagoen araudia betetzea.

4. ARTIKULUA Dirulaguntza lerroak

Osorik edo zatika diruz laguntzeko gastutzat hartuko dira 2026eko urtarrilaren 1etik abenduaren 1a arte egindako gastuak.

Dirulaguntza lerroak mota hauetakoak izan daitezke:

a) Inbertsioetarako eta ustiategien hobekuntzarako dirulaguntzak:

    1. Nekazaritza eta abeltzaintza ustialekuetako eraikinak edo nabeak eraikitzea.

    2. Nekazaritza makineria eta ekipoen erosketa.

    3. Baratzezaintza eta lorezaintza intentsiborako instalazioak, esate baterako: tunelak, berotegiak, ureztatze eta berokuntza instalazioak, itzala emateko atorrak, eltxoen aurkako sareak, labore mahaiak, tutoretze materiala, etab., baita aire libreko baratzetako instalazio finkoak zein teknologia hobekuntzak ere.

4. Arkitektoen eta ingeniarien ordainsariak, baita aurreko ataletako gastuei lotutako bideragarritasun azterketa eta txostenak ere.
5. Berrikuntza teknologikora bideratutako aholkularitza gastuak.
6. Belaunaldien errelebora bideratutako aholkularitza azterketa lanak.
7. Ekoizpen ekologikoa bultzatzeko egitasmoak.

b) Nekazaritza erabilerarako ura ordaintzeko dirulaguntzak.
c) Hildako animalien kudeaketa lanen dirulaguntzak.
d) Larrialdi klimatikora egokitzeko, aurre egiteko edo babesteko dirulaguntzak. Eskaeran espresuki adierazi beharko da larrialdi klimatikoari aurre egiteko direla.
    1. Abereen bazka eta pentsuaren beharrei aurre egiteko.
    2. Ur-hartuneak
    3. Estalki klimatikoak, negutegi egokitzapenak, etab.
    4. Larrialdi klimatikoak eragindako izurriteei aurre egiteko tratamenduak
e) Albaitaritza zerbitzuaren gastuentzako dirulaguntzak.
f) Beste ekintzen dirulaguntzak:
    1. Oiartzungo emakumeak lehen sektorean aritzeko ekintzak.
    2. Azken urtetan abandonatutako nekazal lurretan jarduera berreskuratzeko ekintzak, edo abandonatzeko arriskuan dauden lurrak berreskuratzeko ekintzak.
    3. Oiartzungo baserritarren lan baldintzak hobetzeko ekintzak.

5. ARTIKULUA Diruz lagunduko ez diren gastuak.

Ez da diru laguntzarik emango honelako gastuetarako:

a) Ekoizpen eskubideak, abereak eta urteko landareak erostea eta landatzea.
b) Merkatuko Erakunde Komun bati jarraituz ezarritako ekoizpenaren murrizketen edo laguntza komunitarioen mugen gainetik, ekoizpena handitzera zuzendutako inbertsioak.

c) Landa turismoko ostatu, sagardotegi eta ardandegietako inbertsioak, nekazaritzakoa, baso inbertsio edota baso makineriakoa ez den dibertsifikaziora zuzendutakoak.
d) Ikerkuntza proiektuak egitea, nekazaritza produktuen sustapena edo abereen gaixotasunak desagerraraztea.
e) Ondasunak eskuratu edo fakturatutako zerbitzuengatik ordaindutako BEZa, eta, oro har, ordaindutako edozein zerga, tasa edo baimena.
f) Gastu orokorrak eta finantza mailakoak, baita inbertsioaren ondoriozko aseguru gastuak ere.
g) Basoko ustiapenekin lotutako inbertsio edo gastuak.
h) Makinariaren mantenu lanak.

6. ARTIKULUA Diru laguntzaren zenbatekoa eta irizpideak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da.

1. motako ustiategi bakoitzak gehienez 3.000 €-ko dirulaguntza jasoko du.

2. motako ustiategi bakoitzak gehienez 1.000 €-ko dirulaguntza jasoko du.

6.1 Aurrekontua

2026eko deialdiak 50.000 euroko dirulaguntzak baimentzen ditu aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

- 1 0223.480.414.00.02 2026: 50.000 €

Onuradunen ezaugarrien arabera, honako diru banaketa egingo da:

- 1. motako ustiategiak: 40.000 €
- 2. motako ustiategiak: 10.000 €

Oiartzungo Udalak baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du dauden eskaera guztiak aztertu ondoren. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Hala ere, dauden eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, modu proportzionalean banatuko da.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, bestelako laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

6.2 Irizpideak: Inbertsioetarako eta ustiategien hobekuntzarako dirulaguntzak

Dirulaguntza hauen zenbatekoa honakoa izango da:

- 1. motako ustiapenen kasuan:
    - Gastuaren % 50a, gehienez 3.000 €.
    - Inbertsioak kalitate bereizgarri, jatorri izendapen edo ekoizpen ekologikoko ziurtagirietan jasotako ekoizpenetara zuzenduta egonez gero edo 41 urte baino gutxiagoko nekazari gazteek eginez gero edo ustiategien titularra emakumea denean, laguntzak % 20 handituko dira. Baldintza horietako bat baino gehiago betez gero, laguntzak gehienez ere % 20 handituko dira.
- 2. motako ustiapenen kasuan:
    - Gastuaren % 50a, gehienez 1.000 €.

6.3 Irizpideak: Lehen sektoreko erabilerarako ura ordaintzeko dirulaguntzak.

1. motako ustiategien baldintzak betetzen dituztenei, ur-kontsumoaren fakturaren % 75eko kostea diruz lagunduko zaie, honako baldintzekin:

- Soilik, 62 m^3/hiruhileko ur-kontsumotik gorakoa diruz lagunduko da, kontagailu berdinean ustiategiaz gain etxebizitzak edo beste aktibitateak badaude. Bestela ez da minimorik aplikatuko. Ustiategia bakarrik baldin badago, ez da minimorik aplikatuko.

- Dirulaguntzaren gehieneko kopurua 3.000 €-koa izango da.
- Dirulaguntza argitaratzen den urteko fakturak bakarrik onartuko dira.

6.4 Irizpideak: Hildako animalien kudeaketa lanen gastuak

Gastuaren % 100, 3.000 € gehienez, 1. motako eta 2. motako ustiapenei.

6.5 Larrialdi klimatikora egokitzeko, aurre egiteko edo babesteko inbertsio edo gastuak

- 1. motako ustiapenen kasuan:
    - Abereen bazka eta pentsuaren beharrei aurre egiteko:
        - Gastuaren % 30a, gehienez 3.000 €.
    - Gainontzeko kasuetan:
        - Gastuaren %50a, gehienez 3.000 €.
- 2. motako ustiapenen kasuan:
    - Abereen bazka eta pentsuaren beharrei aurre egiteko:
        - Gastuaren % 30a, gehienez 1.000 €.
    - Gainontzeko kasuetan:
        - Gastuaren %50a, gehienez 1.000 €.

6.6 Albaitaritza zerbitzuaren gastuak (albaitariaren fakturak edo albaitariaren baimenarekin emandako fakturak soilik onartuko dira)

- 1. motako ustiapenen kasuan:
    - Gastuaren % 50a, gehienez 1.000 €.
- 2. motako ustiapenen kasuan:
    - Gastuaren % 50a, gehienez 500 €.

6.7 Irizpideak: Beste ekintzetarako dirulaguntzak

Ekintzaren gastuaren % 50a, 1.000 € gehienez, 1. motako eta 2. motako ustiapenei.

7. ARTIKULUA Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira presentzialki edo egoitza elektronikoan Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskaera orri orokorra.
- Ustiategien errolda-agiria.
- Kontu korrontearen zenbakia eta honen titulartasunaren ziurtagiria.
- 1. Motako ustiapenen kasuan, titularra Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimenean alta emanda egotea edo NLU 1 edo gehiago duela adierazten duen frogagiria.
- Gastua justifikatzen duten fakturak:
    - Inbertsioetarako eta ustiategien hobekuntzarako gastuak.
    - Lehen sektoreko erabilerarako ura ordaintzeko gastuak.
    - Hildako animalien kudeaketarako gastuak.
    - Larrialdi klimatikora egokitzeko, aurre egiteko edo babesteko inbertsio edo gastuak.
    - Albaitaritza zerbitzuaren gastuak.
    - Beste ekintzen gastuak.

8. ARTIKULUA Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak (GAO, 2018/11/30) ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

9. ARTIKULUA Epeak

Eskariak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita abenduaren 1a bitarte aurkeztu beharko dira.

10. ARTIKULUA Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak (GAO, 2018/11/30) 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira.

Beste finantzazio-bide batzuk ere lortu balira, izandako gastuaren %100ean ezartzen da finantzazio-muga, hau da, ezingo da inoiz gertatu gain finantzaketarik Udalaren dirulaguntzarekin.

Halakorik gertatuz gero, itzulera prozedura martxan jarriko da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren (GAO, 2018/11/30) IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

11. ARTIKULUA Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikuluak) zehazten diren pausoak jarraituko ditu.

Udaleko iragarki taulan eta www.oiartzun.eus web orrian ere behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da.

12. ARTIKULUA Onuradunen betebeharrak

- Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak (GAO, 2018/11/30) arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikuluak ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.
- Enpresa jarduerari gutxienez 6 hilabetez eustea, jarduerari berriro ekiteko baimena eman eta/edo alarma-egoera altxatzen den egunaren hurrengotik aurrera.
- Oiartzungo Udalari jakinaraztea beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituela oinarri hauen xede edo oinarri berarekin.

13. ARTIKULUA Dirulaguntza justifikatzea

Onuradunaren betebeharrak justifikatzeko Oiartzungo Udalak egiaztatuko du ofizioz oinarri hauen 7. artikuluan adierazitako dokumentazioa eta 12. artikuluan adierazitako onuradunen betebeharrak.

Betebeharrak betetzen ez badira dirulaguntza itzuli egin beharko da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak (GAO, 2018/11/30) arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

14. ARTIKULUA Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak (GAO, 2018/11/30) ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

OIARTZUNGO UDALA

DIRULAGUNTZA ESKAERA
LEHEN SEKTOREKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO

ESKAERA AURKEZTEN DUENA:

Izen-abizenak:		NA-IFK	Sexua ☐ G ☐ E
Helbidea:		K.P.	Herria
Telefonoa	E-posta		

Eskaera egiten dut: ☐ Nire izenean ☐ Beste baten izenean

ORDEZKATUTAKO PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOA **(norbere izenean arituz gero EZ BETE):**

Izen-abizenak:		NA-IFK	Sexua ☐ G ☐ E
Helbidea:		K.P.	Herria
Telefonoa	E-posta		

*Kasu honetan ahalorde eskriturak erantsi beharko dira edo Udalean interesatuarekin batera aurkeztu ordezkaritza emateko (Apud-Akta)

Jakinarazpena bidaltzeko **HELBIDEA**(aurkezten duen pertsonaren helbide bera bada **EZ BETE)**:

Izen-abizenak:		
Helbidea:	Telefono	E-posta

KONTU KORRENTEA zk:

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Ustiategien errolda-agiria.
- Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.
- 1. Motako ustiapenen kasuan, titularra Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimenean alta emanda egotea edo NLU 1 edo gehiago duela adierazten duen frogagiria.
- Gastua justifikatzen duten fakturak:
  - Inbertsioetarako eta ustiategien hobekuntzarako gastuak.
  - Lehen sektoreko erabilerarako ura ordaintzeko gastuak.
  - Hildako animalien kudeaketarako gastuak.
  - Abereen bazka eta pentsuaren gastuak.
  - Albaitaritza zerbitzuaren gastuak.
  - Beste ekintzen gastuak.

OIARTZUNGO UDALA

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

☐ Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

☐ Ez duela burutzen emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko Legearen testu bateginaren 3.1 artikuluan adierazitako diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jarduerarik; ez duela sexuan oinarrituta diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenik; ez dagoela laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean dutela edo legez behar ez dutelako; eta estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela edo ez dituztela legez ezarri beharrik (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko Legearen testu bateginaren 23.2. art).

☐ Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

EDO

☐ Laguntza eskabide honez gain helburu bererako beste laguntzak jaso edo eskatu dituela, beheko erakunde hauei:

Erakundea	Zenbatekoa	Egoera *

*Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratua

☐ Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskabiderik eginez gero, Oiartzungo Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Tokia eta eguna	**Sinadura**

DATU BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Arduraduna	Oiartzungo Udala Helbidea: Done Eztebe plaza 1, 20180 Oiartzun (Gipuzkoa) Tlf. 943 490 142 Posta: oiartzun@oiartzun.eus
Helburuak eta zilegitasuna	Herritarren eskaerei arreta emateko dagokien espedienteak kudeatzea. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean oinarritutako eskumenak garatzea
Hartzaileak	Arloan eskumena duten beste administrazioei jakinarazi ahal izango dira datu pertsonalak.
Eskubideak	Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezerezteko, eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamendu horren aurka jartzeko. Horretarako, idazki bat eta bere nortasuna egiaztatzen duen agiria bidali beharko ditu Udaletxeko helbidera edo dbo-dpd@oiartzun.eus posta elektronikora.
Informazio gehiago	http://www.oiartzun.eus/datu-babesa

OIARTZUNGO UDALA

III. ERANSKINA: Gastua zuritzea (justifikazioa)

Ordainagirien zerrenda:

Faktura zk.	Data	Hornitzailea IFK eta izena	Azalpena	Zenbatekoa

GUZTIRA	